

## Bederatzi HIES kasu deklaratu dira 2005ean 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean

Harreman heterosexualak, HIESa gazteen artean transmititzeko bide nagusia Euskadin



HIES kasuen kopuruak nabarmen egin du behera Euskadiko gazteen artean. Azken 12 urteetan 128 kasu gutxiago erregistratu dira. Izan ere, 1993an 137 kasu deklaratu ziren eta 2005ean, aldiz, 9. Beherakadarik handiena 1993 eta 1998 artean gauzatu zen.



Iturria: Osasun Saila

Deklaraturiko kasuak 6 mutili eta 3 neskari dagozkie eta gaixo gehienek (7k) 25 eta 29 urte bitarteko adina dute.

2005ean gazteen artean erregistratu diren HIES kasuak bi bidez transmititu dira: harreman heterosexualen bidez (6 kasu) eta bide parenteralez (3 kasu). Ez da harreman homosexual/bisexualen bidez edo bestelako bideren baten bitartez transmititutako kasurik deklaratu.

Datuak transmisio-bideen eta ikerturiko aldien arabera aztertzen baditugu, zera ondoriozta daiteke: 1990eko hamarkadan bide parenteralaizan da transmisio-bide nagusiena, baina azken urteetan bide parenteralez gaixotutakoen kopuruak jaitsiera oso handia izan du. Harreman heterosexualen bidezko

transmisioen kopuruak berdintsu dirau eta, izatez, egun HIESaren transmisiorako bide nagusia da hori.

**15 eta 29 urte bitartekoen artean deklaratu diren HIES kasuak Euskadin, transmisio-bideen arabera. Zenbaki absolutuak, 2005**

	1993	1998	2003	2005
<b>15-29</b>	<b>137</b>	<b>40</b>	<b>12</b>	<b>9</b>
<b>Bide parenterala</b>	121	28	3	3
<b>Harreman homosexualak / bisexualak</b>	4	4	4	0
<b>Harreman heterosexualak</b>	6	6	4	6
<b>Bestelakoak edo ezezagunak</b>	6	2	1	0

Iturria: Osasun Saila

Erlazionaturiko datu taulak:

[1. taula\(pdf, 30 kb\)](#)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)